

ESPEZIALIZAZIO ADIMENDUNA BERRIKUNTZARAKO BIDE BERRIA AL DA?

Posted on 04/03/2013 by Naider

Europar Batasunak eskualdeei espezializazio estrategiak har ditzatela gomendatzen du. lehiakortasun globala indartzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko bidea. Oso modu grafikoan eta sinplean, espezializazio adimenduna ez da esfortzu, baliabide eta ahalmen publiko eta pribatuak lehentasunezko jarduera ekonomikoetan kontzentratzea baino, masa kritikoaren eta eskualdeak nazioarteko testuinguruan dituen abantaila diferentzial espezifikoen arabera aukeratzen direnean.